

%0, GERO ETA GERTUAGO



Jean Claude Trichet Europako Banku Zentraleko presidentea, urtarrilaren 16ko prentsaurreko batean, Frankfurt (Alemania). ARNE DEDERT / EFE

Iragan astean Europako Banku Zentralak %1,5eraino jaitsi zituen interes tasak. Hala ere, orain arte diru politika ez da eraginkorra izan krisia geldiarazteko.

// Joxerra Senar

argi pixka bat igortzen duten berriak ere bada. Iragan astean, Europako Banku Zentralak %1,5 jaitsi zituen Euroguneko interes tasa orokorrak. Horrekin batera, urtebeteko Euriborra %1,93 inguruan dabil. Diruaren prezioa merke egoteak gehiago zorpetzera bultzatu beharko ez lukeen arren, uneotan zorpetuta daudenentzat eta batez ere hipotekak dituztenentzat, inondik ere oso albiste ona da, betiere banku edo aurrezki kutxak ez badie kuotei gutxieneko muga bat ezartzen.

Euskal Herrian inoiz ez dira egon interes tasak hain apal. Gainera, ia ziurrenik, EBZk tasak jaisten jarraituko du. Ezingo da, ordea, oso urrun joan. Iragan ezin daitekeen muga bat du aurrean: %0. Hortik behera ezin da ezer jaitsi. Beste banku zentral batzuk are gertuago dute: Ingalaterrako Bankuak %0,5ean ditu, eta Erreserba Federalak, %0,25ean. Japoniako Bankuak ia %0an ditu.

Krisiari erantzuteko, eraginkorra al da diru politika? Deflazioan erortzeko arriskurik ba al da? Zer beste konponbide ezarri behar di-

ra? Zalantza horiek argitze aldera, *Egitura*-k Nafarroako Unibertsitate Publikoko Mikel Casaresekin, Deustuko Unibertsitateko Iñaki Erauskinekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Jesus Vazquezekin hitz egin du. Hirurak Makroekonomia irakasleak dira.

Une egokian jaitsi al ditu EBZk tasak?

Herrialde industrializatu guztien artean, atzeraldia orokorra da, baina beste banku zentral batzuek lehenago merkatu dute diru politika. Hain zuzen, erabakiak neurri eta garai egokian hartzea da erakundeon zeregin zailenetako bat. Hala ere, Jesus Vazquezek gogoratu du EBZren zeregin nagusia inflazioa kontrolatzea dela: «Horretarako dago. Bestelako gaiak kontrolatzeko beste mota batzuetako politikak daude. Adibidez, zerga politika». Horregatik, Vazquezek uste du une egokian jaitsi direla.

Aldiz, Iñaki Erauskinek iritzi dio EBZk «malguago» jokatu beharko lukeela. Banku zentrala duela hamaika urte eskas sortu zen, eta hain historia laburra izatea «zamatzat» dauka Erauskinek: «Zuhurregi jokatzeko ari da. Ausardia handiagoa behar da, bereziki une honetan, nahiz eta ausardia horrek arrisku gehiago ekarri».

«Ziurtasun faltak erakutsi du tresna ortodoxoak ez direla nahikoak eta bide berriak ireki behar direla»

IÑAKI ERAUSKIN
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

«Diru eta zerga politiken bidez, estatuak dena ematen ari dira, eta hatzak ere gurutzatzen ari dira»

MIKEL CASARES
NUP-EKO IRAKASLEA

«Jabetu behar gara asko hazi nahi badugu ordaina etorriko dela lehenago edo geroago»

JESUS VAZQUEZ
EHUKO IRAKASLEA

Sorrerako estatutuak Alemaniako Bundesbanketik inportatu zituela eta garai hartan inflazioaren gainera kezka handia zela esan du. Haren aburuz, baina, orain «beste aldagai batzuk» kontuan hartu beharko lituzke. Horregatik, «mantsoegi eta beranduegi» jardun duela uste du.

Casaresek, berriz, azaldu du erabakia espero zenez merkatuek jaitsiera hori aurreratu egin zutela. EBZk tasak «minimo historiko» batean edukitzeak «egoeraren larritasuna» erakusten du: «Hain tasa txikiak izatea ez da normala». NUPeko irakasleak argi du hurrengo hilabeteetan jaitsiera gehiago etorriko direla: «Arriskua da %0a gehiegi gerturatzea eta esku hartzeko tarterik gabe gertatzea. Horregatik, nik uste dut hobe dela jaitsiera iraunkorra izatea, harik eta beharrezkoa ez den arte».

Erauskinek espero du %0,5eraino jaitsi daitezkeela oraindik ere tasak. Ez da «azkarregi» jaistearen aldekoa, eta agian pauso txikiak ematea hobe dela deritzo.

Eraginkorra al da diru politika?

Interes tasak jaisteak ez du esan nahi bat-batean egoera leunduko dela. Mikel Casaresen arabera, erabakiak lehenik bankuek elkarren artean ematen dituzten mailuetan eragiten du, bigarrenik zor merkatuetan, ondoren bankuen negozioan eta azkenik enpre-

sa eta sendiek eskatutako maileguren artean: «Azken pauso horretan, konfiantza falta da. Normalean, tasak jaitsita, likidezia handitzen da, eta horrek krediturako sarbidea errazten du».

Orain, baina, egoera bestelakoa da. «Hor ikusten da merkatua ez dela bere onera itzuli oraindik. Oraindik ez dago likidezia nahikorik. Hor datza zalantza: egoerak luze joko ote duen edo aste batzuetako kontua ote den», azaldu du.

Vazquezen aburuz, egoera horrek ez du zerikusirik interes tasekin, «kredituari ezarritako murrizketekin baizik, eta hori banku pribatuek ezarri dute». Gaineratu du finantza krisi batean arazoa ez dela diruaren prezioa, konfiantzarik eza baizik. «Mailegatzeko den diru hori gizabanakoek itzuliko ote duten edo enpresen proiektuak bideragarriak diren dudak dituzte».

Eraginkorra izate aldera, Europako diru politikaren beste arazoa herrialdeen arteko asimetria da: «Bati ondo datorkiona ez datorkie hain ongi besteei», azaldu du Vazquezek. «Asimetria hori da hasieratik izan duen desabantaila», arazoitu du Iñaki Erauskinek, eta hori «arazo larria» dela deritzo.

Hortik haratago, diru politika bera ez dela «guztiz simetrikoa» gaineratu du Deustuko Unibertsitateko irakasleak. «Tasen igoera batek gehiago eragingo luke txarrerako, jaisteak onerako baino. Askotan azaltzen da diru politika